

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

**Hilerokoa duen pertsona** oro izan daiteke makina honen erabiltzailea. Gero eta gehiago dira kopa menstrualak erabiltzen dutenak eta badira kopa erabiltzen ez dutenak etxetik kanpo non eta nola garbitu ez dutelako. Hortaz, makina hauek martxan jarritz gero kopen erabiltzaile kopuruak ere gora egin dezake eta kutsadurak behera.

Makinen erabiltzaileak lirateke horiek, baina makinak leku publikoetan ipintzeko erosi edo alokatu egin beharko dira, beraz, gure merkatuan leudeke **erosle eta errentariak: eskolak, tabernak, liburutegiak, antzokiak, zinemak, museoak, merkataritza guneak, aireportuak, geltokiak, kiroldeguneak eta oro har erakunde publikoak**. Aurrez aipatutako zenbait administrazioak kudeatzen baititu eta besteak modu pribatuan, beraz, horien ordezkariak lirateke makinak jendearen esku jarriko lituzketenak.